



2019eko URTARRILAREN 22EKO BILKURAKO AKTA

Bilkura : Ohikoa

Eguna: 2019/01/22

Ordua: 19.00etan

Deialdia: Lehenengoa

Bilduak:

Olatz Iriarte Argaya. Alkatea

Ane Garmendia Gorostidi.Zinegotzia

Jokin Garmendia Etxeberria.Zinegotzia

Luis Lopez Garcia Uceda .Zinegotzia

Idazkaria: Nekane Lopetegi

GAI ZERRENDA :

- 1.-2018-12-18ko Bilkurako akta onartzea hala balegokio .
- 2.-Korrika erakundearen diru laguntza eskaera , herriko Kultur batzordeak luzatua .
- 3.-Euskaraldia 2018 Tolosaldeko ikerketa plangintza eta aurrekontu proposamena onartzea hala balegokio.
- 4.-Herri batzarrerako informazio prestaketa .
- 5.-Guraso elkarteko eskaera aztertu eta dagokiona erabaki .
- 6.-Baliarraingo euskararen plana onartzea .
- 7.-Alkateak luzatu dituen ebazpenak 2018-50 eta 2018-51 en berri ematea .
- 8.-Galderak eta eskaerak .

1.-2018-12-18 BILKURAKO AKTA ONARTZEA HALA BALEGOKIO .

Alkateak bilerari hasera eman ondoren, 2018-12-18ko Bilkurako aktaren izenburuak irakurri eta komentatu dira . Alkateak galdetzen zerbait zuzentzeko ikusten den. Mahaikide guztiak ados agertu dira eta dagoen bezala onartuta geratu da.



2.-KORRIKA ERAKUNDEAREN DIRU LAGUNTZA ESKAERA , HERRIKO KULTUR BATZORDEAK LUZATUA .

Baliarraingo udaleko kultura batzordeko ordezkariak KORRIKA 2019 dela eta, udalari diru laguntza eskatzen zaio .

Kilometro bakoitzaren balioa 600 euro dira gehi beza .

Aurreko urteetan bezala , Baliarraingo udalak , kilometro erdiaren balioa egitea proposatzen du .

Ondorioz , ERABAKI DA :

1.-Baliarraingo udalak , kilometro erdiaren balioarekin ekarpena egitea , hau da 300 euro beza .

2.-Korrikaren babesletza kontratua sinatzeko , esandako ekarpenarekin egiteko udaleko alkatea baimentzea.

3.-Erabakiaren berri kultura batzordeari ematea eta bide batez , Tolosako Korrika Koordinatzaileari jakinaraztea .

3.-EUSKARALDIA 2018 TOLOSALDEKO IKEKETA PLANGINTZA ETA AURREKONTU PROPOSAMENA ONARTZEA HALA BALEGOKIO.

Galtzaundik , Tolosaldeko ikerketa plangintza eta aurrekontu proposamena aurkeztu zituen eta horrela mahaikideei agertu zaie.

Ikerketa kuantitatiboa eta kualitatiboa izango da. Aterketa honekin euskararen egoera aztertu nahi da Tolosaldean .

Lan honen balioa , 9.670,40 euro direla jakitera eman da , eta hauetatik Baliarraingo udalari dagokion ekarpena zatia 66 eurotakoa dela .

Mahaikideek ERABAKI DUTE :

Tolosaldeko ikerketa lanerako aurreikusitako ekarpena egitea onartzea .

Eta horrela, eskatzailei jakinaraztea .

4.-HERRI BATZARRERAKO INFORMAZIO PRESTAKETA .

2019eko urtarrilaren 25ean egin behar den herri batzarrerako gidoia prestatu da :

1. LEGEALDIAREN ZEHAR EGINDAKO LAN ESANGURATSUAK:
2. 2019RAKO AURREIKUSTEN DIREN INBERTSIOAK
3. UDALAREN EGOERA EKONOMIKOA
4. UR INSTALAZIO ETA BILTEGIAK
5. IBIURKO OBRA OSAGARIAK



- 6. 2019 URTEKO UDAL HAUTESKUNDEAK
- 7. GALDERA ETA ESKAERAK

Mahaikideeen artean gai zerrenda adostu dira .

5.-GURASO ELKARTEKO ESKAERA AZTERTU ETA DAGOKIONA ERABAKI.

Zartagi guraso elkarteak 2018 urteko txostena aurkezten dute eta bertan egindako ekintzen zerrenda agertzen da .

Urteko ekintzen zerrendarekin batera sarrera eta gastuak ere azaltzen dira :

Haserako saldoa	6.732,58 €
Sarrerak	2.850,00€
Gastuak	5.013,67€
Amaierako saldoa	4.568,91 €

Txostenean agertu diren gastuetan , zenbait gastu gastu arruntak dira eta beste gastuak herriko haurrekin gauzatuak izan dira .

Udalak , orain arteko irizpideak jarraituz , haurrekin egiten diren jarduerak laguntzea da.

Beraz , aurkeztu diren ekintzetatik , ondorengo hauek laguntzea proposatu da :

Pasaiko irteera.....	182,00€
Buruarin tailerra	302,50€

Beste zenbait gastu (udalekuak) aurrez lagunduak izan dira .

Guztiaren ondoren , mahaikideek ERABAKI DUTE :

- 1.-2018 urteko ekintzagatik , 484,50 eurotako laguntza oantzea .
- 2.-Udal honetako artxiboan daukagun guraso elkartearen kontu korrontean 484,50 eurotako diru sarrera egitea .
- 3.-Erabakiaren berri guraso elkarteari ematea



6.-BALIARRAINGO EUSKARAREN PLANA ONARTZEA .

Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak eta Baliarraingo Udalak landutako plan hau ikusi da:

VI. Plangintzaldirako (2018-2022) Euskararen Erabileraren Plan Estrategikoa, Udaleko euskararen erabileraren diagnostikoa egin ondoren eta Bikain ebaluazio prozesuaren Erreferentzia Marko Estandarrari jarraituz egin dena.

Kontuan izan da Euskararen Erabileraren Plan Estrategikoa Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzara (HPS) bidali dela eta, haiek plana aztertu ondoren, begi onez ikusi dutela BaliarraingoUdalak egin duen plan-proposamena, eta aldeko txostena bidali dutela Udalera.

Ondorioz , ERABAKI DA :

Lehen.- Onestea BaliarraingoUdalaren Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana 2018-2022 (VI. Plangintzaldia).

Bigarrena.-Akordio hauek jakinaraztea Eusko Jaurlaritzako *Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzari* eta UEMari.

7.-ALKATEAK LUZATU DITUEN EBAZPENAK 2018-50 ETA 2018-51 EN BERRI EMATEA .

Alkateak ondorengo ebazpen hauek eman ditu , azken bikuratik gaur arte :

2018-50.-Karmele Aurkia langileari zegokion lizentzia onartzea

2018-51.-Hainbat ordainketa , 2940,47 € onartua.

8.-GALDERAK ETA ESKAERAK .

Bat .- Martzelino Dorronsoro blearara etorri zen eta alkateak hitza eman zion , bere iritzian zenbait puntu azaltzeko :

.-Ur kontsortzioarekin geratzea komeni dela ur hornidura instalazio zaharretik edo berrietik dauden jakiteko .

.-Ibiur urtegiko obra osagarriak direla eta San Juan bidearen hobekuntza proposatzeko aurrez ikuste komeni dela .



BALIARRAINGO UDALA
(GIPUZKOA)

.-Herriaren mantenimendu lanak , bere iritzian , ez direla behar diren arretarekin eraman .

Eta besterik ezean , bilera amaitutzat eman zuen alkateak , 21:10 etan .

Alkateak

Idazkariak